



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK

2010ko UZTAILA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2010

ENPRESAREN EKONOMIA

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

A AUKERA

1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

Irakur ezazu testu hau eta erantzun galderei

Eusko Jaurlaritzak itun bat egin du bankuekin

Eusko Jaurlaritza akordio batera iritsi da aurrezki-kutxekin eta bankuekin babes ofizialeko etxebizitzaren (BOE) **hipoteken kostua arintzeko**. Krisi ekonomikoak beharturik iritsi da akordioa. Helburu hauek ditu: batetik, Etxebideren erregistroan izena emana duten herritarrei laguntzea, eta, bestetik, sustatzaileei laguntzea, etxebizitza babestuen salmenta **eraikuntza-sektorearen** "babesgune" bihurtu baitaiteke. Hurrengo urtetik aurrera, finantza-entitateek aldatu egingo dituzte ofizialki BOEei aplikatzen zaizkien interes-tasak, eta **euribor** +0,30 eta +0,75 balioen artean ibiliko dira. Orain, 0tik 1,25 puntura bitarteko aldea dago erreferentzia-indizearen gainetik.

Urtero, 2.000 **kreditu** berri baino gehiago egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoan, babes ofizialeko etxebizitzak finantzatzeko. Etxebizitza horietatik, 1.500 inguru Eusko Jaurlaritzak esleitzen ditu Etxebideko zozketen bidez.

Kutxa eta bankuekin egindako itunak, jabetzako etxebizitza babestuez gain, alokairukoak ere jasotzen ditu, Eusko Jaurlaritzaren **helburu estrategiko** bihurtu baita. Etorkizuneko dekretuaren arabera, BOEen erosleak ez ezik, alokairu babestua sustatzeko maileguak eskatzen dituzten udalak eta entitate pribatuak ere izango dira euribor +0,30 eta +0,75era bitarteko alde horren onuradunak.

Galdekisunak:

1. Azaldu eta komentatu testuan azpimarratuta agertzen diren hitzen esanahia.
2. Azaldu zer-nolako ondorioak izan daitezkeen alokatzeko erabiltzen diren etxebizitzak eraikiko dituzten erakunde pribatuei emandako kredituetan, alokairuak merkatzen badituzte.

2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

Enpresa batek, bere produktua ekoizteko, kostu hauek ditu hilero: lokalaren alokairua, 8.000 €, behin betiko langileen soldatak, 7.000 €, hainbat kostu finko, 5.000 €, eta unitateko kostu aldakorra, 6 €. Salmenta-prezioa, 10 €/unitateko.

Galdera hauei erantzun eta azaldu kontzeptuen esanahia:



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK

2010ko UZTAILA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2010

ENPRESAREN EKONOMIA

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

- Produktu honen puntu hila.
- Enpresak 10.000 unitate ekoiziz gero, zein izango da emaitza?
- Egin ezazu adierazpen grafikoa.
- Enpresaren ekoizpenaren gehienezko muga 4.000 unitate izango balitz, zer salmenta-prezio jarri beharko litzateke galerarik ez izateko?.

3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

Enpresa batek ZZZ produktua merkaturatzen du, eta urtarrilean, biltegian, mugimendu hauek erregistratu ditu:

01/01	Hasierako izakinak	1.000 produktu 20 euroan
04/01	Salmentak A bezeroari	350 produktu 28 euroan
08/01	Salmentak B bezeroari	475 produktu 30 euroan
11/01	Erosketak C hornitzaileari	500 produktu 22 euroan
16/01	Salmentak A bezeroari	275 produktu 29 euroan
18/01	Salmentak B bezeroari	150 produktu 31 euroan
19/01	Erosketak D hornitzaileari	300 produktu 23 euroan
25/01	Salmentak A bezeroari	500 produktu 32 euroan

Aurreko datuekin, bete ezazu ZZZ produktuaren urtarrileko biltegi-fitxa BPH (batez besteko prezio haztatua) eta FIFO (First In, First Out) balorazio-metodoak erabiliz. Kalkula ezazu bukaerako unitate kopurua eta izakinen balioa.

4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu

Sarrailagintza-enpresa batek bere sarraila mota bakunena egiteko makineria berritu beharra du. Baina dilema bat du: sarrailak ekoizteko inbertsioa egitea edo txinatarrei erostea sarraila mota hori eta berak merkaturatzea.

Erosi beharreko makinariak 24.000 €ko balioa du, eta sarraila bakoitza ekoizteak 6 €unitateko kostua ekarriko lukeela balioetsi da.

Eskatzen da:

- Orain arteko produkzioarekin jarraituz gero, 6.000 unitate hain zuzen ere, gehienezko zer prezioarekin izango litzateke egokiagoa txinatarrei erostea?
- Txinatarrei erostea 8 € kostatuko balitz, zenbat sarraila beharko lirateke errentagarriagoa izan dadin makineria erostea eta bertan ekoiztea? Egin ezazu kasu honen adierazpen grafikoa.
- Zein da kostu finko eta aldakorren arteko desberdintasuna? Jarri adibide bat.

5. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1 puntu.

Adierazi zein diren kontzeptu hauen arteko desberdintasunak:

- Salmenten sustapena eta Publizitatea.
- Bigarren marka eta Marka zuria.

BILTEGI-FITXA

BALORAZIO-IRIZPIDEA:

DATA	DESKRIPZIOA	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kopurua	Prezioa	Balioa	Kopurua	Prezioa	Balioa	Kopurua	Prezioa	Balioa

IZAKINEN BALIOA:
UNITATE KOPURUA:

BILTEGI-FITXA

BALORAZIO-ERIZPIDEA:

DATA	DESKRIPZIOA	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kopurua	Prezioa	Balioa	Kopurua	Prezioa	Balioa	Kopurua	Prezioa	Balioa

IZAKINEN BALIOA:
UNITATE KOPURUA:



B AUKERA

1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

UMA SA enpresak bi proiektu hauen artean inbertitzeko aukera du:

- 1) 100.000 € balio duen makina bat (A). Hurrengo hiru urteetan kutxa-fluxu hauek aurreikusten dira: 30.000 €, 40.000 € eta 60.000 €, hurrenez hurren. Bigarren urtean mantentze-lanen gastuak 3.000 € izango dira, eta hirugarren urtean 5.000 €-an salduko da makina.
- 2) 150.000 € balio duen beste makina bat (B). Iraupena 3 urtekoa da, eta datu hauek ditugu:

	1. urtea	2. urtea	3. urtea
Kostu osoa	110.000€	120.000€	130.000€
Salmenta-prezioa unitateko	10€	12€	13€
Ekoizitako/saldutako unitateak	15.000€	16.000€	17.000€

- Sailka itzazu inbertsio-proiektuak “pay-back” edo berreskuratze-epearen irizpidea erabiliz.
- Inflaziorik gabeko baldintzan inbertsioei % 4ko errentagarritasuna eskatzen zaiela eta urteko % 2ko inflazio metatua dagoela jakinik, zein izango da aipaturiko inbertsioen sailkapena BEG irizpidea (balio eguneratu garbia) erabiltzen bada?
- Zein da bi metodo horietatik egokiena? Zergatik?

2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

Ehungintza-enpresa batek bi sailetan antolatzen du ekoizpen-prozesua: ebaketa, 43 langilerekin, eta jantzigintza, 39rekin. Hilean 160 lanordu kontratatzen dira langileko, bi sailetan. Ebaketa-sailean, hilean 45.000 ale ekoitz ditzakete, eta, jantzigintzan, berriz, 37.000. Hau eskatzen da:

- Zehaztu enpresa horren ekoizpen-gaitasuna, eta arrazoitu erantzuna.
- Zehaztu lan-faktorearen produktibitatea sail bakoitzean, biek gaitasun osoarekin funtzionatzen badute. Interpretatu lortutako emaitza.
- Iradoki beste aukera batzuk, langile berriak kontratatzeaz gainera, enpresaren ekoizpen-gaitasuna orekatzeko eta baliabideak hobeto aprobetxatzeko.

3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 4 puntu

TXIMISTA SA enpresak bateriak ekoizten eta saltzen ditu. 2009ko abenduaren 31n ondare-elementu hauek ditu:



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK

2010ko UZTAILA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2010

ENPRESAREN EKONOMIA

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

• Bazkideen ekarpenak	????????????
• Ekoizpenerako makineria	30.000€
• Ekitaldiaren emaitza	17.000€
• Jarduerarako erabilitako eraikina	50.000€
• Biltegiko lehengaiak	30.000€
• Aurreko urteetako erreserbak.....	30.000€
• Bezeroek ordaindu gabeko letrak	5.000€
• Ohiko hornitzaileei ordaindu gabeko fakturak	35.000€
• Behin-behineko kutxako diru-soberakinekin erositako beste enpresa bateko akzioak	4.000€
• Bateriak bukatuak.....	50.000€
• Ekipamendu informatikoa	5.000€
• Produktu berri batentzako hartutako patentea.....	3.000€
• Bankuetako kontu korranteetan dagoen dirua.....	2.000€
• Lehengai-hornitzaileei onarturiko truke-letrak	14.000€
• Ogasunekiko zorrak	7.000€
• Produktuak banatzeko ibilgailuak.....	25.000€
• Epe luzean ordaintzeko ibilgetu-hornitzaileak	30.000€
• Bezeroei kobratzeko fakturak.....	75.000€
• Bankuari hiru urtean itzultzeko mailegua.....	53.000€
• Altzariak	7.000€

Datu honekin, hau eskatzen da:

- Enpresaren egoera-balantzea osatzea ondare-masatan sailkaturik, eta bazkideek egindako ekarpena kalkulatzeko.
- Maniobra-fondoa kalkulatzeko, grafikoki adieraztea eta emaitza aztertzea.
- Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:
 - Diruzaintza edo altxortegia.
 - Likidezia.
 - Zorpetze osoa.
 - Finantza-autonomia.
 - Ibilgetua.

4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1 puntu

Azaldu itzazu kontzeptu hauek:

- Lan-kontratua.
- Praktiketako kontratua.
- Hitzarmen kolektiboa.